

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Juanjo Agirrezabala Mistoa-Eusko Alkartasuna Taldeko bozeramaileak, Mikel Martinez Euzko Abertzaleak Taldeko legebiltzarkideak, Aintzane Ezenarro Aralar Taldeko bozeramaileak eta Mikel Arana Mistoa-Ezker Batua Berdeak Taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen Erregelamenduari jarraiki, honako **legez besteko proposamen** hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, **1976ko marxoaren 3ko biktimak terrorismoaren biktimatzat jo beharrari buruz**.

ZIOA:

Gaur 35 urte, 1976ko martxoaren 3an, espainiar Poliziak Pedro Maria Martinez Ocio, Francisco Aznar, José Castillo, Romualdo Barroso eta Bienvenido Perea hil zituen Gasteizen, langile mugimenduak egun hartarako deitutako greba orokorrari errepresioaz aurre egiteko aginduei jarraituz.

Poliziak egun hartan izandako jokaera bidegabe eta hiltzailea jokaera terrorista izan zela esatea ez da gehiegikeria eta, beraz, 1976ko martxoaren 3ko biktimek, hildakoek zein zaurituek, terrorismoaren biktimatzat hartuak izateko eskubide osoa dute, bai eta justizia eta erreparazioa jasotzeko ere. Espainiako Gorte Orokorrak Terrorismoaren Biktimei aitortpena eta erabateko babesa emateko, Legea tramitatzen ari dira egun eta, borondate politikoa izanez gero, atek zabalik daude, Egiaren eta Oroimenaren izenean, lege horretan Martxoaren 3ko biktimak Terrorismoaren Biktima gisa jasotzeko eta hortik ondoriozta daitezkeen erreparazioak aintzat hartzeko.

Hau guztia dela eta, honako **legez besteko proposamen** hau aurkezten da, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, **1976ko marxoaren 3ko biktimak terrorismoaren biktimatzat jo beharrari buruz:**

1.- Eusko Legebiltzarrak 1976ko martxoaren 3an Ordena Publikoko Indarrek Gasteizen, Zaramaga auzoan, egindako hilketak eta eraso basatiak gaitzesten ditu berriro ere.

2.- Eusko Legebiltzarrak elkartasuna adierazten die berriro ere biktimei eta haien senitartekoei eta terrorismoaren biktimak direla onartu eta aldarrikatzen du.


3.- Eusko Legebiltzarrak Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak Egia, Justizia eta Erreparazioaren eske bultzaturiko ekimenak babesten ditu eta, ahaztearen eta zigorgabetasunaren aurka, Oroimena eta Justizia aldarrikatzen ditu, duela 35 urte Gasteizen gertatutakoa goitik behera argitu, biktimei justizia eskaini eta dagozkion ardurak garbitze aldera.

1.- El Parlamento Vasco condena nuevamente los asesinatos y las brutales agresiones cometidas el 3 de marzo de 1976 por las Fuerzas del Orden Público en Gasteiz, en el barrio de Zaramaga.

2.- El Parlamento Vasco se solidariza una vez más con las víctimas y con sus familiares y reconoce y reivindica su condición de víctimas del terrorismo.

3.- El Parlamento Vasco apoya las iniciativas de la Asociación de Víctimas del 3 de Marzo en demanda de Verdad, Justicia y Reparación y, contra el olvido y la impunidad, reivindica la Memoria y la Justicia, a fin de que se esclarezca por completo lo sucedido en Gasteiz hace 35 años, se haga justicia a las víctimas y se depuren las responsabilidades que procedan.





4.- Eusko Legebiltzarrak aitortu eta aintzat hartzen ditu 1976ko martxoaren 3ko biktimek historikoki egindako Egia, Justizia eta Erreparazio eskea betetzeko Arabako Foru Aldundia eta Legebiltzarra bera bezalako instituzioek azken urteotan bultzatutako ekimen guztiak.

5.- Eusko Legebiltzarrak espainiar Gobernuari eskatzen dio 1976ko martxoaren 3ko biktimak sar ditzala egun Gorte Orokorretan tramitazioan dagoen Terrorismoaren Biktimak aitortpena eta erabateko babesa emateko Legean. Halaber, Legebiltzar honek auzi hau motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketa eta beste sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako lantaldean aztertze konpromisoa hartzen du.

6.- Eusko Legebiltzarrak espainiar Gobernuari eskatzen dio gertaera larri haietan Estatuak izandako erantzukizuna onar dezala eta biktimei eta haien senitartekoei barkamena eska diezaiela.

4.- El Parlamento Vasco reconoce y valora todas las iniciativas promovidas por instituciones como la Diputación Foral de Araba y el propio Parlamento a lo largo de estos últimos años para satisfacer la demanda de Verdad, Justicia y Reparación formulada históricamente por las víctimas del 3 de marzo de 1976.

5.- El Parlamento Vasco insta al Gobierno español a que incluya a las víctimas del 3 de marzo de 1976 en la Ley de Reconocimiento y Protección Integral a las Víctimas del Terrorismo, actualmente en tramitación en las Cortes Generales. Asimismo, este Parlamento se compromete a analizar este caso dentro de la Ponencia para el reconocimiento y la reparación a las víctimas de violaciones de derechos humanos y otros sufrimientos injustos producidos en un contexto de violencia de motivación política.

6.- El Parlamento Vasco insta al Gobierno español a que reconozca la responsabilidad del Estado en aquellos trágicos sucesos y pida perdón a las víctimas y a sus familiares.

Gasteizen, 2011ko martxoaren 4an.

Juanjo Agirrezabala
Mistoa-Eusko Alkartasuna Taldeko
bozeramailea

Aintzane Ezenarro
Aralar Taldeko bozeramailea

Mikel Martinez
Euzko Abertzaleak Taldeko
legebiltzarkidea

Mikel Arana
Mistoa-Ezker Batua Berdeak Taldeko
bozeramailea

